

ITDIZ

SUITE



serrano

Dentro del mundo de la música y el euskera ITOIZ ha sido la referencia desde finales de la década de los años 70, y hoy en día veinte años después de su disolución, sigue ocupando una parcela importante en el mundo de la cultura. Entre las distintas singularidades por las que destaca el grupo, no podemos pasar por alto que hablamos del primer grupo musical que inicia un camino entre la unión del euskera y el mundo del rock.

Desde un primer momento, logra una fidelidad contagiosa de un público que crece en paralelo al grupo, tanto en lo musical como en lo personal y cultural. Se crea una coherencia generacional a lo largo de treinta años, dando paso a ganar nuevos públicos a pesar de una anunciada disolución.

La historia de ITOIZ comienza en 1974 con el grupo Indar Trabes formado por jóvenes de la zona de Mutriku y Ondarroa con el fin de animar bodas y verbenas. Logran un gran éxito en el público que les sigue por todo Euskal Herria, produciendo un gran efecto en el boca-oído por sus actuaciones frescas y novedosas en euskera que eran vanguardia. Sus directos nos ponían en el mapa musical del momento y mirábamos a la modernidad a los ojos, mientras el grupo que no se detiene, va evolucionando.

No hablamos de copistas, hablamos de músicos y poetas dando salida a sus propias inquietudes en los escenarios y en los discos, pasando de los repertorios de verbenas a un rock progresivo en euskera, sin olvidarse de la influencia de grandes músicos con toques jazz y mucho de música experimental.

La unión de la música tradicional vasca, el rock y las letras existencialistas en euskera nos marca esta primera etapa de ITOIZ, formada por cuatro discos: Itoiz (1976), Ezekiel (1978), Alkolea (1980), y Muzikaz Blai (1982).

En la segunda etapa, el grupo deriva hacia un estilo pop-rock, y convierte a ITOIZ en el grupo de mas éxito en la década de los 80, en competencia con los grupos apoyados por las grandes multinacionales del disco. Hablamos de un grupo de aquí, con excelente calidad, de una categoría internacional y que comunica en euskera.

No podemos pasar por alto la llegada del guitarrista Jean Marie Ecay en 1983, su sonido y saber hacer marca esta segunda etapa y como muestra esta la producción discográfica: Espoloian (1985), Ambulance (1987), y Eremuko Dunen Atzetik Dabil... (1988) doble disco recopilatorio grabado en directo en Fadura (Getxo), con el que se disolvió el grupo.

ITOIZ va unido al nombre de Juan Carlos Pérez, líder y fundador del grupo, que posteriormente con la disolución del grupo inicia una carrera en solitario.

ITOIZ

Euskara eta musikaren munduan 70eko hamarkadaren bukaeratik aurrera ITOIZ izan da erreferentzia, eta gaur egun ere, taldea desegin zenetik hogeit hamar urte pasatu ondoren, toki garrantzitsua dauka kulturaren munduan. Taldearen ezaugarri diren berezitasunen artean, ezin da ahaztu euskara eta rockaren mundua biltzeko bideari ekin zion lehenengo musika taldea izan zela.

Hasiera-hasieratik lortu zuen jarraitzaile ugari eta leialak izatea, taldearekin batera hazi zirenak, bai musikari dagokionean baita arlo kultural eta pertsonalean ere. Hogeita hamar urteetan zehar belaunaldien koherentzia lortu eta publiko berriak irabazten joan da desagerpena jakina bazen ere.

ITOIZen historia 1974an hasi zen Indar Trabes taldearekin, Ondarroa eta Mutriku inguruko gazteek ezkontza eta herriko jaiak animatzeko osatutako taldea. Arrakasta handia lortu zuten jarraitzaileen artean eta ahoz aho zabaldu zen bere izena euskaraz abangoardia ziren kontzertu fresko bezain berritzaileei esker. Zuzeneko emanaldiak garai hartako musika arloan ipini gintuzten eta modernotasunari parez pare begiratzen genion, taldearen bilakaerak aurrera jarraitzen zuen bitartean.

Ez gara kopiagileez ari, musikagile eta poetei buruz baizik, eszenatoki zein diskoetan euren ezinegonak bideratzen zituztenak, herriko jaietarako egindako erreperitorioetatik euskal rock progresibo batera pasatuz, jazz kutsuko musikagile handiak eta musika esperimentalak baztertu gabe.

Euskal musika tradizionala, rocka eta euskarazko letra existentzialistak dira ITOIZen lehenengo etapa markatu zutenak, lau diskoz osatua: Itoiz (1976), Ezekiel (1978), Alkolea (1980) eta Musikaz Blai (1982).

Bigarren etapan, berriz, taldea pop-rock estilora gerturatu eta 80ko hamarkadako talderik arrakastatsuenen bihurtu zen, diskoaren multinazional handiek lagundutako taldeekin lehia zuzenean. Bertako talde bat da, kalitate bikainekoa, nazioarte mailako kategoria duena eta euskaraz komunikatzen dena.

Ezin da baztertu Jean Marie Ecay gitarrista 1983an heldu izana, bere soinua eta jakintzak izan baitziren bigarren etapako ezaugarri, eta hala ikus daiteke orduko ekoizpen diskografikoan: Espaloian (1985), Ambulance (1987) eta Eremuko Dunen Atzetik Dabil (1988), taldea desegin zenean Faduran (Getxon) grabatu zen bilduma disko bikoitza.

Itoiz Juan Carlos Pérezen izenarekin lotuta dago, taldeko lider eta sortzailea, ondoren, taldea desegin zenean, bakarkako lanari ekin ziona.

ITOIZ





Fecha de nacimiento: 28 de Mayo de 1958. Mutriku (Gipuzkoa).

Desde siempre la música y la literatura. Hasta los 17 años estudios elementales de solfeo, guitarra y clarinete en la Academia Municipal de Música de Mutriku, primero con Cecilio Pagoaga y después con Paco Arrieta. Participa también durante estos años en el Coro infantil Parroquial bajo la batuta de Cecilio Pagoaga.

En 1975 comienza la etapa de Bilbao: estudios de Derecho en la Universidad de Deusto, que termina en 1982. Durante este tiempo forma el grupo **ITOIZ**, que entre 1978 y 1988 realiza una gran actividad musical: giras, siete discos grabados entre el País Vasco, Madrid y París. Canciones como "Lau teilatu", "Hegal egiten"... o el trabajo conceptual "Ezekiel" -siempre en una estética rock- tienen una gran repercusión entre el público y la crítica.

Paralelamente a esto, estudia dos años de violín entre 1983 y 1984. Solfeo, Armonía, Piano, y Estética en el Conservatorio de Bilbao. Un Curso de Composición de Música Electroacústica en el Conservatorio de Cuenca con Gabriel Brncic. También realiza diversas labores de producción artística en diferentes estudios de grabación.

En 1984, comienza a componer por encargo bandas sonoras para series documentales de TV: "La aventura humana", "Los tres anillos" de TVE, "Dr.Livingstone...supongo" de ETB, etc... y también, trabajos para teatro, danza y cine ("Lo mejor de cada casa", "Clara", "Lendakari", "La buena voz"...) que luego, algunos de ellos, se recogen en el doble CD "**Bitacora cahiera**" (CD Elkarlanean).

Compone diversa música y canciones para varias series infantiles de TV: "*Poli*", "*Marraskil Boss eta Pantxineta*", "*Super Bat*"...; de dibujos animados: "*Alex y Alexis*", "*Flannery eta bere Astakiloak*" con Bernardo Atxaga, etc...

En 1994 edita en solitario "**Atlantic River**", un disco de canciones propias, interpretadas por él mismo, y con el que retoma un lenguaje pop-jazz y comienza una andadura paralela a la de la composición. En 1996 edita su segundo en solitario "**Hau Berua**", y hace una gira de presentación en directo.

Desde 1997 profundiza en la música de cámara, con varias composiciones para distintas formaciones destacando el "Cuarteto de cuerda nº1", la "Sonata para flauta y piano", "Foxtrot" para saxos y percusión, y encargos diversos como "Zai" para coro, "Ikaro" para Maskarada, "Hiruko Haiku" etc....

Con su obra "**Bizkaieraz**" compuesta en el 2005 para orquesta Sinfónica, y estrenada por la Bilbao Orkestra Sinfonikoa en el concierto inaugural de la temporada 2007/2008, se asienta en el campo sinfónico con gran éxito de público y crítica.

Actualmente se dedica a readaptar la música de Itoiz para orquesta sinfónica, bajo el título de ITOIZ SUITE destinada a estrenarse por la BOS en el 2009.



Jaiotza data: 1958ko maiatzaren 28a. Mutriku (Gipuzkoa).

Betidanik musika eta literatura. 17 urte bete arte solfeo, gitarra eta klarineteko oinarrizko ikasketak egin zituen Mutrikuko Musikako Udal Akademian, Cecilio Pagoagarekin lehenengo eta Paco Arrietarekin gero. Urte horietan parrokiako haur abesbatzan ere parte hartu zuen Cecilio Pagoagaren batutapean.

1975ean Bilboko etapa hasi zen: zuzenbide ikasketak Deustuko Unibertsitatean, 1982an bukatu zituenak. Garai hartan ITOIZ taldea sortu zuen, 1978 eta 1988 bitartean musika arloan lan handia egin zuena: birak, zazpi disko grabatuta Euskal Herria, Madril eta Paris artean. "Lau teilatu", "Hegal egiten"... bezalako kantek edota "Ezekiel" lan kontzeptualak –beti ere rockaren estetikarekin– arrakasta handia lortu zuten entzuleen eta kritikaren artean.

Aldi berean, 1983 eta 1984 bitartean biolina ikasi zuen bi urte, baita solfeo, harmonia, pianoa eta estetika ere Bilboko Kontserbatorioan. Cuencako Musika Kontserbatorioan musika elektroakustikoaren konposizioari buruzko ikastaroa egin zuen Gabriel Brncicekin. Halaber, ekoizpen artistikoko zenbait lan egin zituen grabaketa estudio desberdinetan.

1984an, enkarguz hasi zen telebistako sail dokumentalantzako musika bandak konposatzen: TVEko "La aventura humana", "Los tres anillos", ETBko "Dr. Livingstone... supongo", etab.; antzerki, dantza eta zinemarako ere lanak egin zituen ("Lo mejor de cada casa", "Clara", "Lendakari", "La buena voz"...) eta gerora horietako batzuk "**Bitacora cahiera**" izeneko CDan bildu zituen (CD Elkarlanean).

Halaber, telebistarako haurrentzako sail ugarirentzat ere musika eta kantak konposatu zituen: "Poli", "Marraskil Boss eta Pantxineta", "Super Bat"... , baita marrazki bizidunentzat ere: "Alex y Alexis", "Flannery eta bere Astakiloak" Bernardo Atxagarekin, etab.

1994an "**Atlantic River**" argitaratu zuen bakarka, berak egindako eta berak abestutako kantuen disko bat, pop-jazz kutsua berreskuratzen duena; horrekin konposizioarekin batera eraman zuen beste ibilbide bati ekin zion. 1996an bakarkako bere bigarren lana argitaratu zuen, "**Hau berua**", eta zuzenean aurkezteko bira bat egin zuen.

1997tik ganbera musikan sakondu zuen eta lan ugari egin zituen talde desberdinentzat; horien artean "1 zenbakiko hari laukotea", "flauta eta pianoan jotzeko sonata", saxo eta perkusiorako "Foxtrot", eta enkargu ugari, hala nola "Zai", abesbatzarentzat, "Ikaro", Maskaradarentzat, "Hiruko Haiku", etab.

2005ean "Bizkaieraz" lana konposatu zuen orkestra sinfonikoarentzat, eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak estreinatu zuen 2007-2008 denboraldiko inaugurazio kontzertuan; lan horri esker arlo sinfonikoan finkatu zen entzuleen eta kritikoen artean arrakasta handia lortuz.

Gaur egun Itoizen musika orkestra sinfonikoarekin jotzeko egokitzen ari da ITOIZ SUITE izenarekin, BOSak 2009an estreinatuzeko helburuz.



Hablar de *Itoiz suite* es hablar de variaciones sinfónicas sobre la música del grupo de rock Itoiz, reescrita para la plantilla de una orquesta sinfónica por Juan Carlos Perez, miembro originario del grupo y compositor de la mayoría de su música, con el ánimo de preservar la estética rock que inspiró la música de aquel grupo legendario y adaptarla al lenguaje propio de una orquesta sinfónica.

La idea surge desde hace unos años por parte de la BOS y de su Director Juanjo Mena, que siempre veía atractivo un proyecto de esta envergadura -¿para cuándo un Itoiz sinfónico? - y que, aprovechando el estreno de la obra sinfónica *Bizkaieraz* de Juan Carlos Perez en Octubre de 2007 dentro de la Temporada de Conciertos 2007/08, se concreta en algunas conversaciones que llevarán a decir: "es el momento".

La obra consta de siete movimientos, que originariamente corresponden a otras tantas canciones del grupo:

1- Ezekiel, 2- Marea gora, 3- Marilyn, 4- Goizeko deiadar / Lo egin, 5- Lau teilatu, 6- Hegal egiten, 7- Foisis jauna, con una duración de unos 40 / 45 minutos, y un pequeño regalo -"*Zati txiki bat La m'en*"-, canción del primer disco de Itoiz editado en 1978, y que a modo de *bis*, será la única pieza cantada, por Jose Garate, ex-miembro de Itoiz y actualmente contrabajista fijo en la BOS, y Juan Carlos Perez, acompañados por la orquesta.

Se trata pues de un trabajo sinfónico, sin texto, liderado exclusivamente por la música, variada sobre la original; a veces reinventada, otras veces respetada con el cuidado y rigor de historiador, pero siempre manteniendo vivo el pensamiento musical de aquella música tan enraizada en la estética rock de los 70.

Música, sólo música.

Música de Itoiz escrita para ser interpretada con el gesto de una orquesta sinfónica clásica.

Holst, Elgar, Britten, Bernstein, Sibelius, Vaughan Williams son nombres de algunos de los músicos que "vigilan" desde la lejanía esta re-adaptación. Y no es casualidad que la mayoría de ellos pertenezcan a una cultura anglosajona, pues es un hecho reconocible que la música *culta* de estos compositores y la música *rock* beben de la misma tradición.

Son múltiples las referencias que hay de proyectos de este tipo en el mercado internacional: música sinfónica interpretada y grabada por la *London Symphony Orchestra*, adaptaciones de las músicas de grupos míticos de rock como *Who*, *Pink Floyd*, *Led Zeppelin*, etc ... todos ellos grupos de referencia del grupo *Itoiz* en su época más creativa.

Así pues, estamos ante un reto excitante y atrayente, tanto para los entusiastas seguidores de Itoiz, que quieren oír su música en otro marco de sonoridades, como para el gran público clásico, que podrá disfrutar de este acercamiento, en un plano estrictamente musical.

Autor:

JUAN CARLOS PEREZ

Intépretes:

BOS

Director:

IKER SANCHEZ SILVA

Diseño gráfico y escénico:

JESÚS MARI LAZKANO

Producción Ejecutiva:

PRODUCCIONES SERRANO



Itoiz suite esatea Itoiz rock taldearen musikaren gaineko bariazio sinfonikoei buruz hitz egitea da, Juan Carlos Pérezek, jatorrizko taldeko kide eta musikaririk gehiena konposatu duenak, orkestra sinfoniko batentzat berridatzia, talde haren musika inspiratu zuen rock estetika gorde eta orkestra sinfoniko baten berezko hizkuntzara egokitzeke helburuz.

Idea duela urte batzuk sortu zen BOSaren eta Juanjo Mena zuzendariaren eskutik, beti ikusten baitzuen erakargarri neurri horretako proiektua –noizko Itoiz sinfonikoa?–. Izan ere, Juan Carlos Pérezen *Bizkaieraz* lan sinfonikoaren estreinaldia zela eta, 2007ko urrian 2007-08 Kontzertu Denboraldiaren esparruan, izandako elkarrizketetan “hauxe da momentua” erabaki zuten.

Lanak zazpi mugimendu ditu, taldearen beste hainbeste abesti dutenak abiapuntu:

1- Ezekiel, 2- Marea gora, 3- Marilyn, 4- Goizeko deiadar / Lo egin, 5- Lau teilatu, 6- Hegal egiten, 7- Fois jauna, guztira 40-45 minutu, eta opari txiki bat: **“Zati txiki bat La m’en”**, Itoizek 1978an argitaratu zuen lehenengo diskoko kantua, bis erara, abestuko den pieza bakarria izango dena, Jose Garate, Itoizeko kide ohia eta gaur egun BOSaren kontrabaxu jotzaile finkoa, eta Juan Carlos Pérezen ahotsekin, orkestrak lagundurik.

Lan sinfonikoa da, beraz, testurik gabea, jatorrizkoaren gainetik bariatutako musikak bakarrik gidatua; batzuetan berrasmatua, beste batzuetan historiagilearen arreta eta zintzotasunarekin errespetatua, baina beti ere 70eko hamarkadako rock estetikan sustraituta zegoen musikaren pentsaera musikala bizirik gordetzen.

Musika, musika, besterik ez.

Itoizen musika, orkestra sinfoniko klasiko baten eskuekin interpretatua izateko idatzia.

Holst, Elgar, Britten, Bernstein, Sibelius, Vaughan Williams dira urrunetik ber-egokitzapen hau “zaintzen” duten musikari batzuen izenak. Ez da kasualitatea gehienak kultura anglosaxoniarran egotea, nabaria baita musikagile hauen musika *kultoa* eta *rock* musika tradizio beretik elikatzen direla.

Ugari dira nazioarteko merkatuan era honetako proiektuak: *London Symphony Orkestrak* interpretatutako eta grabatutako musika sinfonikoa, *Who*, *Pink Floyd*, *Led Zeppelin*, etab. bezalako talde mitikoen musikaren egokitzapenak... guztiak ere Itoiz taldearen erreferentzia taldeak zirenak sorkuntza lanik handiena egin zuten garaian.

Erronka kitzikagarri bezain erakargarri baten aurrean gaude, bai Itoizen jarraitzaile sutsuentzat, bere musika beste soinu-esparru batean entzun nahi dutenak, bai klasikoaren publiko handiarentzat, hurbilketa honetaz gozatu ahal izango baitute, musika maila hutsean.

Autorea:
JUAN CARLOS PEREZ

Interpreteak:
OSB

Zuzendaria:
IKER SANCHEZ SILVA

Diseinu grafiko eta eskenikoa:
JESÚS MARI LAZKANO

Ekoizpena:
PRODUCCIONES SERRANO





La Bilbao Orkestra Sinfonikoa ofreció su primer concierto el 8 de marzo de 1922 en el Teatro Arriaga, bajo la batuta de Armand Marsick. Nació del impulso de la propia sociedad civil de Bizkaia, un territorio con el que mantiene una íntima relación que hoy día queda reflejada en los más de 2.200 abonados a su Temporada Sinfónica.

Desde su fundación ha tenido como directores titulares a Armand Marsick, Vladimir Golschmann, Jesús Arámbarri, José Limantour, Antoine de Babier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, Pedro Pirfano, Urbano Ruiz Laorden, Theo Alcántara y Juanjo Mena. Desde julio de 2008, Günter Neuhold asume la dirección titular y artística de la Orquesta.

La BOS ha desarrollado, a lo largo de estos más de 85 años, una gran actividad tanto en Bilbao y Bizkaia como en el exterior. En julio de 2003 la BOS, bajo la batuta de Juanjo Mena, fue invitada por Valery Gergiev para actuar en el Teatro Mariinski de San Petersburgo dentro de las celebraciones del 300 aniversario de la ciudad. Este concierto marcó un hito en la nueva proyección internacional de la Orquesta, que es invitada con regularidad a los Festivales *La folle journée* en Nantes y *La Roque D'Antheron* en Marsella. En mayo de 2007 ha sido invitada a Japón, ofreciendo una serie de 10 conciertos en Tokio para cerca de 40.000 personas.

Además de su presencia en foros internacionales, en la historia de la BOS cabe destacar las giras por ciudades españolas que durante décadas la convirtieron *de facto* en la "Orquesta del norte". Además, la BOS ha actuado frecuentemente en el Auditorio Nacional de Madrid, en la Quincena Musical Donostiarra, en el Festival Internacional de Santander, Festival de París, Festival de Música Religiosa de Cuenca o en el ciclo "Orquestas del Mundo" de Ibermúsica. En marzo de 1998 es invitada al concierto de investidura de los compositores Carmelo Bernaola, Cristóbal Halffter y Luis de Pablo como Doctores Honoris Causa por la Universidad Complutense de Madrid. En 1998 representó a Euskadi en la Exposición Universal de Lisboa, y en 1999 participó en la inauguración del Palacio Euskalduna, sede de la Orquesta.



Bilbao Orkestra Sinfonikoa 1922ko martxoaren 8an eman zuen lehenengo kontzertua Arriaga Antzokian, Armand Marsicken batutapean. Bizkaiko gizarteak sustatuta sortu zen, eta harreman estua du gaur ere lurralde honekin, horixe ikus baitaiteke Denboraldi Sinfonikorako dituen 2.200 abonatuak esker.

Sortu zenetik honako hauek izan ditu zuzendari: Armand Marsick, Vladimir Golschmann, Jesús Arámbarrri, José Limantour, Antoine de Barbier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, Pedro Pirfano, Urbano Ruiz Laorden, Theo Alcántara eta Juanjo Mena. 2008ko uztailetik Günter Neuhold da Orkestrako zuzendari titular eta artistikoa.

85 urte luze hauetan BOSak Bilbo eta Bizkaian ez ezik, kanpoan ere jarduera zabala izan du. 2003ko uztailean, Juanjo Menaren batutapean, Valery Gergievek gonbidatu zuen San Petersburgoko Mariinsky Antzokian jotzeko, hiriaren 300. urteurrenaren ospakizunak zirela eta. Kontzertu hori Orkestraren nazioarteko proiektio berriaren gertaera gogoangarria izan zen eta sarritan gonbidatzen dute Nanteseko *La folle journée* eta Marsellako *La Roque D'Antheron* jaialdietara. 2007ko maiatzean Japoniara gonbidatu zuten eta Tokion 10 kontzertu eman zituen, guztira ia 40.000 pertsona bildu zituztenak.

Nazioarte mailako foroetan egoteaz gain, BOSaren historian bereizgarriak dira Espainiako hirietan egindako birak, horiei esker harmarkada askotan izan baitzen "Iparraldeko Orkestra". Horrez gain, BOSak honako hauetan jo du sarritan: Madrilgo Auditorio Nacionalean, Donostiako Musika Hamabostaldian, Santanderreko Nazioarteko Jaialdian, Pariseko Jaialdian, Cuencako Musika Erlijiosoko Jaialdia edota Ibermúsicak egiten duen "Orquestas del Mundo" zikloan. 1998ko martxoan Carmelo Bernaola, Cristobal Halffer eta Luis de Pablo musikagileak Madrilgo Complutense Unibertsitatean Honoris Causa Doktoarek izendatu zituztenean inbestidura-ekitaldiko kontzertura gonbidatu zuten. 1998an Lisboako Erakusketa Unibertsalean Euskadiko ordezkaria izan zen eta 1999an Euskalduna Jauregiko inaugurazio-ekitaldian parte hartu zuen, gaur egun egoitza duena.



Serrano

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendari titular eta artistikoa: Günter Neuhold

La relación de directores que se han puesto al frente de la BOS incluye nombres históricos como los de Enrique Fernández Arbós, Bartolomé Pérez Casas, Ataulfo Argenta, Hans Von Benda, Eduardo Toldrá, Sir Malcolm Sargent e Igor Markevitch, y otros como Charles Dutoit, Ros Marbá, García Asensio, Jerzy Semkow, Josep Pons y Aldo Ceccato. Ha sido también instrumento en manos de Maurice Ravel, Jesús Guridi, Pablo Sorozábal, Jesús Arambarri, Krzysztof Penderecki, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo, Ernesto y Cristóbal Halffter y otros compositores en la ejecución de sus propias obras.

La BOS, a lo largo de su ya dilatada historia, ha compartido escenario con algunos de los más grandes solistas: José Iturbi, Arturo Rubinstein, Jacque Thibaud, Vladimir Horowitz, Fritz Kreisler, Joseph Szigeti, Henryk Szeryng, Vlado Perlemuter, Mstislav Rostropovich, Salvatore Accardo, Joaquín Achúcarro, Felix Ayo, Nicanor Zabaleta, Maurice André, Mischa Maisky, Narciso Yepes, Alicia de Larrocha, Boris Belkin, Ivo Pogorelich, Jean Pierre Rampal, Viktoria Mullova, Asier Polo, Truls Mork y Frank Peter Zimmermann, entre otros muchos. En el listado de voces figuran nombres como Victoria de los Angeles, Montserrat Caballé, Alfredo Kraus, Plácido Domingo y Luciano Pavarotti, así como la Sociedad Coral de Bilbao, Orfeón Donostiarra y Coro de la UPV.

Además de su temporada de abono en el Palacio Euskalduna, su natural extensión a las poblaciones vizcainas, la colaboración en óperas de ABAO, y sus giras y salidas, la Orquesta realiza conciertos didácticos desde 1985, iniciativa en la que puede considerarse pionera. Mantiene, además, líneas de colaboración con otras instituciones culturales como el Teatro Arriaga y el Museo Guggenheim Bilbao.

La actividad de la BOS se desarrolla gracias al apoyo de sus numerosos aficionados y a las aportaciones de sus Patronos: Diputación Foral de Bizkaia y Ayuntamiento de Bilbao.



BOSaren aurrean zuzendari ipini direnen zerrendan ere izen historikoak daude, besteak beste: Enrique Fernández Abós, Bartolomé Pérez Casas, Ataulfo Argenta, Hans Von Benda, Eduardo Toldrá, Sir Malcolm Sargent eta Igor Markevitch, baita Carles Dutoit, Ros Marbá, García Asensio, Jerzy Semkow, Josep Pons eta Aldo Ceccato ere. Halaber, Maurice Ravelen, Jesús Guridiren, Pablo Sorozabalen, Jesús Arambarriren, Krzysztof Penderecki, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo, Ernesto eta Cristobal Halffteren eta bestelako musikagile batzuen batutapean jo du euren lanen exekuzioan.

Bere historia luzean zehar bakarlaririk handienekin ere egon da eszenatokian: José Iturbi, Arturo Rubinstein, Jacque Thibaud, Vladimir Horowitz, Fritz Kreisler, Joseph Szigeti, Henryk Szeryng, Vlado Perlemuter, Mstislav Rostropovich, Salvatore Accardo, Joaquín Achúcarro, Felix Ayo, Nicanor Zabaleta, Maurice André, Mischa Maisky, Narciso Yepes, Alicia de Larrocha, Boris Belkin, Ivo Pogorelich, Jean Pierre Rampal, Viktoria Mullova, Asier Polo, Truls Mork eta Frank Peter Zimmermann, besteak beste. Ahotsen zerrendan ere izen handiak daude, besteak beste Victoria de los Ángeles, Montserrat Caballé, Alfredo Kraus, Plácido Domingo eta Luciano Pavarotti, hala nola Bilboko Koral Elkarte, Donostiako Orfeoia eta EHuko Abesbatza.

Diskografiaren arloan, bereziki aipagarria da euskal musikaren bilduma Naxos zigiluarentzat, Arambarri, Guridi, Arriaga, Isasi, Usandizaga eta Sarasateri dedikatutako CDak biltzen dituen, Juanjo Menaren zuzendaritzapean. Halaber, 1985ean Jesús López Cobosekin Arriagaren lanekin egindako grabaketak ere aipagarriak dira.

Euskalduna Jauregian abonatuentzako egiten dituen denboraldiak, Bizkaiko herrietan egiten dituenak, OLBERen operetan egindako elkarlana, birak eta irteerak..., horiei guztiei erantsi behar zaizkie orkestrak 1985etik egiten dituen kontzertu didaktikoak, eta ekimen horretan aitzindaritzat har dezakegu. Horrez gain, elkarlanerako hariak ditu Arriaga Antzokia eta Guggenheim Bilbao Museoa bezalako beste kultura-erakunde batzuekin.

BOSaren jarduera zaletuen laguntzari eta babesle dituen Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udalaren ekarpenei esker garatzen da.





Nace en Irún en 1976 donde comenzará a recibir clases de trompeta. Se especializa en San Sebastián, Burdeos y Munich, colaborando con Orquestas como la Sinfónica de Euskadi, Bilbao y Sinfónica de Munich. En 2004 decide dedicarse a la dirección de Orquesta.

Su formación como director se centra en los cursos realizados con los maestros Jesús López Cobos, Arturo Tamayo o Enrique García Asensio, así como en el seminario organizado por el IRCAM de París con los directores Peter Eötvös y Szolt Nagy junto a la Philarmónica de Luxemburgo.

Inicia su experiencia como director en la música de cámara, dirigiendo diferentes conjuntos instrumentales dedicados a la difusión de la música del siglo XX y XXI: T.I. 04 (Vitoria), Conjunto Instrumental de MUSIKENE (San Sebastian), KABOS Ensemble (Bilbao), CRE-ART PROYECT, KRATER Ensemble (Londres), KRATER (San Sebastian)... interpretando a compositores como Milhaud, Stravinsky, Jolivet, Feldman, Varese, Berio, Murail, Bernaola, Jose Luis Torá, Lazkano, Erkoreka,...y estrenando composiciones de diferentes autores actuales como Felix Ibarondo, Sergio Gutiérrez, Oscar Colomina, Xabier Mariño, Mikel Chamizo, Aurelio Edler... Ha participado en Festivales como en el I Festival Internacional Carmelo Bernaola, Quincena de Música de San Sebastián, II Festival de Nuevas Tendencias de Estíbaliz, en el ciclo de cámara de la BOS. En junio de 2008 actuó junto a SMASH Ensemble en el Auditorio 400 del Reina Sofia en Madrid dentro de la temporada del CDMC.

En el terreno de las Orquestas, ha dirigido la Orquesta Sinfónica de Euskadi, Orquesta Sinfónica de Bilbao, Orquesta Sinfónica de Tenerife, la Donostiako Kamara Orkestra con el que consiguieron en 2007 el segundo premio Nacional de Jóvenes Agrupaciones, la Orquesta de Cámara de Vitoria actuando en el Festival de Jazz de Vitoria junto a solistas como Terence Blanchard y Paty Austin. Durante la presente temporada es invitado para participar en el encuentro de verano de la Joven orquesta Nacional de España.

Obtiene la plaza de Director Asistente de la Orquesta Sinfónica de Bilbao tras el concurso realizado en Septiembre de 2007 y con la que ha realizado la temporada pasada diversos programas en diferentes escenarios con un repertorio ecléctico que abarca desde los conciertos didácticos hasta estrenos de compositores actuales como Felix Ibarondo y Tomas Garbizu en el Festival de Música "Musikaste". Su contrato es prolongado para la temporada 08/09 realizando un concierto de temporada.

Como director graba para RTVE, EITB, Radio Nacional de España, y el estreno de 3 conciertos para piano.



Irunen jaio zen 1976an, eta bertan hasi zen tronpeta eskolak hartzen. Espezializazioa Donostian, Bordelen eta München egin zuen, Bilboko, Euskadiko Orkestra Sinfonikoekin eta Municheko Sinfonikoarekin. 2004an orkestra zuzendaritzan aritzea erabaki zuen.

Zuzendari bezala egindako prestakuntza Jesús López Cobos, Arturo Tamayo edota Enrique García Asensio maisuekin egindako ikastaroetan du ardatz, baita Pariseko IRCAMek antolatutako mintegia ere, Peter Eötvös eta Szpłt Nagy zuzendariekin, Luxemburgoko Philharmonikoarekin.

Zuzendari lanetan ganbera musikaren arloan hasi zen, XX. eta XXI. mendeetako musika zabaltzera dedikatutako talde instrumental desberdinekin: T.I. 04 (Gasteiz), MUSIKENeko Talde Instrumentala (Donostia), KABOS Ensemble (Bilbao), CRE-ART PROYECT, KRATER Ensemble (Londres), KRATER (Donostia); eta Milhaud, Stravinsky, Jolivet, Feldman, Varese, Berio, Murail, Bernaola, José Luis Torá, Lazkano, Erkoreka... bezalako musikagileen musika interpretatuz. Halaber, gaur eguneko egileen konposizio lanak estreinatu ditu, besteak beste: Felix Ibarondo, Sergio Gutiérrez, Oscar Colomina, Xabier Mariño, Mikel Chamizo, Aurelio Edler... Hainbat jaialditan ere parte hartu du: Carmelo Bernaola Nazioarteko Jaialdia, Donostiako Musika Hamabostaldia, Estibalizeko Joera Berrien II Jaialdia, BOSaren ganbera zikloa. 2008ko ekainean Madrilgo Reina Sofiako Auditorio 400ean lan egin zuen SMASH Ensemblearekin batera CDMCren denboraldiaren esparruan.

Orkestren arloan, honako hauek zuzendu ditu: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Tenerifeko Orkestra Sinfonikoa, Donostiako Kamara Orkestra (2007an talde gazteentzako 2. sari nazionala irabazi zuten berarekin), Gasteizeko Ganbera Orkestra, Gasteizeko Jazz Jaialdian Terence Blanchard eta Paty Austin bezalako bakarlariekin.

Bilboko Orkestra Sinfonikoko zuzendari laguntzaile plaza lortu zuen 2007an egindako lehiaketaren ondoren. Izan ere, horrekin joan den denboraldian programa desberdinak egin zituen zenbait eszenatokitan, kontzertu didaktioetatik gaur egungo musikagileen (Felix Ibarondo eta Tomas Garbizu kasu) estreinaldietara doan programa eklektiko batekin Musikaste Musika Jaialdian. Kontratua 08/09 denboraldira luzatu zen eta denboraldiko kontzertu bat egin zuen.

Zuzendari moduan grabaketak egin ditu RTVE, EITB, Radio Nacional de Españarentzat eta pianoan jotzeko hiru kontzerturen estreinaldia.





Nace en Bergara, en 1960.

Profesor Titular del Departamento de Pintura y Doctor en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco. En 1994, lee su tesis doctoral "De la distancia entre lo formal en arquitectura y la arquitectura como imagen..." de la que forman parte cuarenta grabados.

En 1985 recibe el premio Gure Artea.

Ha realizado numerosas exposiciones individuales en EEUU, Suiza, Yakarta, España e Italia.

Sus estancias en ciudades como Nueva York, Chicago, Yakarta o Roma han estructurado su trabajo en sucesivas series y temas recurrentes. Constituyendo un referente continuo en su pintura, estrechando aún más su vínculo con la arquitectura.

Ha llevado a cabo importantes obras de grandes dimensiones, en el Parlamento Vasco, Palacio Euskalduna, Metro Bilbao, Intercambiador de San Mamés, Aula Magna de la UPV/EHU...

En 1998, fue becado en la Academia de Bellas Artes en Roma y mantiene una estrecha relación con Italia, donde expone con asiduidad. Su trabajo, se acompaña de cuidadas ediciones facsimiles de sus cuadernos de dibujo, realizados en sus viajes, sobre Roma o New York y numerosos catálogos monográficos.

Coordina en Bilbaoarte, el seminario Paisajes ¿Qué paisajes?, como encuentro de reflexión en torno a la construcción intelectual del concepto paisaje.

En el año 2003, se presentó en la Sala BBK de Bilbao, una gran retrospectiva de sus últimos 15 años de pintura, junto con la publicación de un Catálogo Razonado, coordinado por Kosme Barañano.

Su obra se encuentra en diversas colecciones y museos en varios países, como la Colección Bvlgary y el Museo Guggenheim Bilbao.



Bergaran jaioa 1960an.

Euskal Herriko Unibertsitateko Pintura Saileko irakasle titularra eta Arte Ederretan Doktorea. 1994an bere doktoretza tesia irakurri zuen, "De la distancia de lo formal en la arquitectura y la arquitectura como imagen...", eta horri dagozkio berrogei grabatu.

1985ean Gure Artea Saria jaso zuen.

Erakusketa ugari egin ditu EEBBetan, Suitzan, Yakartan, Espainian eta Italian.

New York, Chicago, Yakarta edota Erroman egindako egonaldien ondorioz, bere lana sailetan eta gaietan antolatu da. Halaber, etengabeko erreferentzia bihurtu da bere pintura lanean, arkitekturarekin duen lotura estutuz.

Neurri handietako lan garrantzitsuak burutu ditu, besteak beste Eusko Legebiltzarrean, Euskalduna Jauregian, Metro Bilbaon, San Mameseko trukatzailean, UPV/EHUko Aula Magnan...

1998an Erromako Arte Ederretako Akademiak beka bat eman zion eta harreman estua gordetzen du Italiarekin, non sarritan egiten baititu erakusketak. Bere lanak, gainera, marrazketa-koadernoen edizio faksimilez laguntzen dira, bidaietan zehar eginda, Erroma edo New Yorki buruz, hala nola katalogo monografiko ugari bezala.

Bilbaoarten Paisajes ¿Qué paisajes? mintegia koordinatzen du, paisaia kontzeptuaren eraikuntza intelektualari buruzko hausnarketarako topagune bezala.

2003an, Bilboko BBK Aretoan pintura arloko bere azken 15 urteetako atzera begirada bat aurkeztu zen, Catálogo Razonado izenekoaren argitalpenarekin batera, Kosme Barañanok koordinatua.

Bere lana hainbat herritako bilduma zein museotan aurki daiteke, Bvlgary Bilduma edota Guggenheim Bilbao Museoa bezala.





serrano

Ribera de Axpe 11, Edif. A, local 108 • 48950 ERANDIO (BIZKAIA)
Tlf: 94.6765631 • Fax: 94-6765505 • www.pserrano.com